

OSTATU TURISTIKOEN ANTOLAKETA. PROPOSATUKO ARAUDIARI BURUZKO APUNTEAK

Azken urte haueetan zenbait azterlan egin ditu Baztango Udalak turismoari dagokionez.

Nabarmenenak, Erratzuko antolaketaren ingurukoa, Amaiur eta Baztango turistaren profilar buruzkoa, Ostatu Turistikoen Azterketa, eta azken hau, "Ostatu turistikoen antolaketarako arau multzoaren idazketa". Azterketa hau, Felipe Saragueta Aholkularitzak, Rehabite Aholkularitza Teknikoak eta Ikertalde lantzen ari dira, Baztango Turismo eta Merkataritza zinegotziarekin batera.

Azterlanean sortutako dokumentuak:

- 1.1.1 Aproximación a la caracterización general de Baztan y sus lugares o zonas. Fuentes y parámetros posibles, subjetivos u objetivos
- 1.2.1 Revisión de la proposición de indicadores y líneas de trabajo planteadas en el diagnóstico de alojamientos turísticos de 2021. Definición de datos fuente
- 1.2.2 Objetivación del término sostenibilidad en el ámbito normativo y establecimiento de franjas de saturación mediante indicadores objetivos
- 1.3.2 Análisis de las normas jurídicas existentes en esta materia en el ámbito municipal y sectorial (ordenanza, PM, foral, estatal...), y Benchmarking, en el sentido de recopilar información sobre la materia aplicada en otros territorios
- 1.3.3 Análisis de opciones jurídicas que se plantean para la regulación de alojamientos turísticos bajo el parámetro de seguridad jurídica
- 1.4 Planoak
- 1.5 El turismo en Baztan. Síntesis diagnóstica y DAFO

Orri hontan jartzen diren dokumentuak:

- 1_Baztango Turismo antolamendurako arautegiaren Laburpena. Azterketa eta arautegi proposamena. Power Pointa
- 2_Arauketaren lerro nagusiak lauki sinoptikoan
- 3_Baztango Ostatu Turistikoen Azterketa. 2020-2021

3 adierazleen inguruan apunte hauek:

1. Plazak 100 biztanleko. Espainiako erkidegoen batez besteko kopuruak hartu ziren erreferentziatzat. 35ean jarri zen jasangarritasun langa, hazkunderako tarte bat uzteko baina espainiako zonalde turistiko masifikatuenen kopurutik behera geratzeko. Nafarroako erkidegoko maila, gaur den egunean, 10 da.
2. Etxebizitza ez printzipala parke osoarekiko. Nahiz eta ideala bigarren etxebizitza kopurua zein den jakitea den, aipaturiko datua Nafarroako Gobernuak monitarizatzen du. Etxebizitza printzipala norbait erroldatua dagoen etxebizitza da. Ez printzipalak dira hutsak, bigarren etxebizitzak eta alojamenduak. Nafarroako batazbertzekoa %30 inguruan dago, Baztanen altuagoa da. Etxebizitzari funtzio sozial bat egotzi nahi bazaio adierazle hau inportantea da.

3. Plaza dentsitatea k2-ko. Kanarietako azterlan bat izan da erreferentzia, baita Nebrijako unibertsitateak publikaturiko bertze bat, espainiako helmuga nagusiak kontuan hartuz. Helmuga turistikoetan kopuruak 30eko langa horretatik askoz gorago kokatzen ziren. Espainiako batez bestekoa 42koa zen 2018 urtean. Baztango banaketa territorial bereziak adierazle hau desitxuratzen du: 3an kokatzen da lurralde osoa hartuta, herri lurrak barne, eta Hiri lurrak hartuta aldiz aipaturiko batzbertzekoetatik aunitz goratzen da. Adierazle hau errebisioan dago oraintxe.

Prozesuaren inguruan:

Abenduaren 5era arte herritarraren ekarpenak eta galderak jasoko dira ekarpenak@baztan.eus korreo elektronikoaren bitartez. Abenduan, arauketa dokumentu bat idatziko da jasotakoetan oinarrituz. Hemendik aitzinera, osoko bilkurak onartu beharko du eta plan berezi baten bitartez izanen litzateke prozedura administratiboa, halakoetarako legeak ezartzen dituen alegazio epeak eta gainerakoak kontutan hartuta.

Eranskinak:

- Ostatu turistikoen azterketa: [http://www.baztan.eus/wp-content/uploads/2022/11/1.1-Ostatu-Turistikoen-Azterketa Baztan Konprimitua.pdf](http://www.baztan.eus/wp-content/uploads/2022/11/1.1-Ostatu-Turistikoen-Azterketa_Baztan_Konprimitua.pdf)
- Aurkezpena - Turismo antolamendu arautegia: http://www.baztan.eus/wp-content/uploads/2022/11/1.2-15_11_2022_Baztango-Turimo-antolamentu-arautegia.-AURKEZPENA-Laburtuta-2022.pdf
- Laburpena: [http://www.baztan.eus/wp-content/uploads/2022/11/1.3-Laburpena Lauki-sinoptikoa-eus-gaz.pdf](http://www.baztan.eus/wp-content/uploads/2022/11/1.3-Laburpena_Lauki-sinoptikoa-eus-gaz.pdf)